

## **ALDE ZAHARRA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETA (E03 ETA E32 ERAIKUNTZA-UNITATEEI DAGOKIENA)**

2015eko apirilaren 29an egindako bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak erabaki zuen behin betiko onespena ematea 1-1 area -OR ALDE ZAHARRA- BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETARI (3. ALDAKETA). Teodoro Rochas SL sozietateak abiarazi zuen espedientea eta E03 eta E32 eraikuntza-unitateei eragiten die (Kale Nagusia 15 eta Azara kalea 15). Onartu den dokumentua 2015eko martxoko testu bategina da, Jaime Abalos arkitektoak idatzitakoa.

Akordioaren testu osoa eta haren aurka ezarri daitezkeen errekurtsioak 2015eko maiatzaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (90 zenbakia) argitara eman dira.